

bidegileak



Nazario de Oleaga (1884-1961)

Egilea:

ANDRES URRUTIA

Bizi-xehetasunak

Nazario de Oleaga Muguruza Bilbon jaio zen 1884. urteko uztailaren 28an. Bertan batxiller-urteak burutu, eta Deustuko Unibertsitateko ikasle izan zen, lege-ikasketak amaitu arte (1905). Handik laburrera Zeanuriko idazkari-tza hartu zuen, aldi berean abokatu-lanak egiten zituela Bilbon. Bizkaiko hiriburura etorri zen Zeanuritik, behin betiko, 1925. urtean.

Abandoko elizatean jaio zen haren emaztea, Emilia Etxeberria Iturbe andre euskalduna. Umeak ere zortzi izan zituzten andra-gizonek: Jesus, Fidel, Aurora, Leonor, Begoña, Jose, Agustin eta Jabier.



Nazario de Oleaga, euskal legegaria (1884-1961)

Euskarari eta abokatutzari emandako bizi-tza luze bezain aspergabe baten ondoren, Bilbon zendu zen 1961. urteko abenduaren 5ean, hirurogeita hamazazpi urte zituela.

Oleagak bazuen, esan legez, bere ogibideko zeregina, eta erro-errotik lotu zitzaion horri. Hartara, abokatutza-lanetan, Esteban Bilbao karlista luzaroan izan zuen bulegokide eta irizkide. Sarritan ere —gerra-garaia barne—,



Oleaga-Etxeberria senar-emazteak eta seme-alabak. Ezkerretik hasita, behean, Begoña, Jabier, José, Agustín eta Aurora; goian, Jesús, Leonor eta Fidel; jarrita, Oleaga-Etxeberria senar-emazteak



Deustuko Unibertsitatearen ikasle eta irakasleen zerrenda (1905)

arduradun eta kargudun ageri zen Bizkaiko Abokatuen Bazkunean.

Nazario de Oleaga, abokatutzaz landara ere, zuzeneko parte-hartzaile da xx. mendeko euskalgintzan, gerra aurrekoan zein ondokoa. Parte-hartze hori, esan gabe doa, Eusko Ikaskuntzan, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuan nahiz Euskaltzaindian hezurmamitu zuen Oleagak, azken erakunde horretan idazkaritza eta osterantzeko lanak ere urte frankotan izan baitzituen bere esku. Resurrección Maria de Azkue euskaltzainbuararen adiskide mina, eta, gerra ondoko garai ilun eta lazarrietan, lekeitiarraren makulua eta aldamenekoa.

Nazario de Oleagak, bestalde, gar berezia erakutsi zuen betidanik euskararentzat. Hizkuntza ikastearekin batera, bera izan zen, lanbidea eta euskara uztartzen jakin zituen artean, nagusienetarikoa. Horretan aspaldiko tradizio euskaltzaleari eutsi zion, batez ere abokatutza-arloetan. Halakoxea, beraz, haren egina, euskara eta euskalgintza lege-munduarekin lotu zituena. Lotura horretatik, bistan da, egundoko fruituak etorri ziren euskararen sostengu eta euskarrirako, etsipen-garaietan batik bat.

Sona handiko abokatu euskaltzalea, ondorenez, Nazario de Oleaga. Azpimarratzekoa, berebat, haren arrangura Bizkaiko foru-zu-



Oleaga abokatu gaztea



Zuzenbide-ikasketen titulua

zenbide zibila pizteko eta bideratzeko, bizkaitarren foru-legeetatik indarrean geratu zen hondarra deuseztaturik gera ez zedin.

Ideologiaz karlista, On Jaime zale porrokatua. Hala agertu zuen bizitza osoan zehar. Karlista izan arren, jakin zuen hark, alabaina, gizon jotkatzen eta bat egiten, herriaren onbeharrez, asmokide ez zituenekin. Sustatzaile-lana ere taxuz moldatu zuen urte hits eta okerretan, euskara bera suspertzeko tenorean.

Hitz bitan esanda, aparteko lekukoa euskararen bilakaeran, gerra aurreko giro euskaltzale zabaltzailea eta gerra osteko estualdiak ezagutu zituen. Nolabait ere, ekaitzaren ondoko euskal jorraketarako lehen ildoak sumatu zituen. Horretarako, esan beharrik ere ez dago, talaia ederra izan zuen bere ahaleginetan.

Resurrección María de Azkue, euskaltzainburua eta Nazario de Oleagaren adiskide mina

Hasierako euskaltzaina

Gazterik sartu zuten Oleaga Euskaltzaindian. Erakundea sortu berri zela (1919), Azkuek ekarri zuen akademiaren barrunbera Nazario de Oleaga, eta kargutan jarri ere. Sorrerako akademia hartan bazen hizperrigintzarako eta euskararen batasunerako gogo, eskuragarri ikusten baitziren horiek, etorkizun euskaldun baten esperoan. Igurikimenak, hala ere, errealitate bihurtu behar, eta, horretarako, argi dago, lana nagusi. Lan luzeak eta sakonak egin ziren aldikada hartan Euskaltzaindian, eta horien emaitzak aldiro-aldiro argitaratu *Euskera* aldizkarian. Azkuek, Akademiako buruak, berehala izendatu zuen Oleaga, Lhandek kargua utzi zuela, aldizkariaren jagole eta arduradun.



Bestelako lanak eta ardurak ere hartu zituen Oleagak Euskaltzaindian. Batzordeetan, *Lur-izenbatzaillen* batzordea egokitu zitzaion, eta *Erizkindirako* gaietan Azkue, Orixe eta gainerakoen laguntzaile ibili zen.

Berandu gabe jakin zuen Oleagak, 1933. urtean, sortu berria zen talde euskaltzale baten partaidetza hartzen. Xede zuten Euskaltzaindiari laguntzea, euskara zabaltzeko ahaleginean. Eginkizun, kazetaritzan jardutea, horrek ematen baitzuen aparteko indarra euskaltzaren alorrean. Hara doaz hainbat euskaltzale eta euskaltzain: Damaso Intza, Martin Lekuona, Nazario de Oleaga... Berehala argitaratuko dute euren aldizkaria, *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia*. 1934-1935. urte bitartean agertu zen Bilbon, hilabetero hasieran, eta bi hilabeterik behin, gerora ere.

Lagun minak ziren, hortakotz, Azkue eta Oleaga. Konfiantza handikoak, elkarri zor

zioten begirunea inoiz ere galdu gabe. Adiskideen arteko giro horrek ahalbidetu zuen, gerra osteko urte gordinetan ere, Euskaltzaindia aurrera ateratzea. Oleagak miresmen handia zuen Azkuerenganako, eta egoki laburbildu zuen berea, Azkue hil ostean ere, haren gorazarreko ekitaldian (1957):

Adimen argia, bizia, zolia, zan berea. Edozein gai zala, laster eta sakon aztertuten eban eta gunera eltzen zan, atzenengo ondorenak atararik... Gomutamena, oroimena, arrigarria, ezin sinistu leikenalangoa eukan... Naimena, guramena, sendoa eukan; setatsua bai, baña ez setatia; eztabaidako gaia ganoraz ta egoki azaltzen yakonean, bekian bere burua makurtuten eta bere autu-lagunen aburura, eritxira, menderatzen, menpetzen. Norbaitzuk, bere soin andi-zerden-zabala ikusirik, arroa ete-zanen susmoz egon zitekezan; baña ez zan olakorik; bestela, oso apala eta leuna.

Euskaltzaindiaren laguntzalleak
(1934-1935)



Gerra ondoko Euskaltzaindian

Gerraren txikizioak aise birrindu zuen euskalgintzaren etxe ederra. Ondorio zitalak ekarri zituen guduak, Euskaltzaindia azpiratua eta beheratua geratu zelarik. Argi-printzak etorri zitzaizkion gero Azkueri, berbaz baimendu ziotenean berriro ere Akademian aritzea. Aldamenean zuen, beti legez, Nazario de Oleaga jurista bilbotarra. Bi-biok hartu zuten euren sorbaldetan Euskaltzaindia berriro jaso eta euskararen aldeko ekimenak sustatzeko zama.

Eginkizun erraza ez, alafede! Eginahalak egin arren, oztopoak eta debekuak nagusi. Euskarra bera ere, abertzale sunda larregikoa izan, eta, ondorenez, guztiz susmagarriak haren inguruan zihardutenak.



Azkuek eta Oleagak, txiri-txiri, estekak lotzen eta sareak ehotzen, Euskaltzaindiaren berpiztea nola edo hala erdietsi zuten. Bien bitartean ere, Azkueren hiztegia itzultitara jarri, eta fitxategia antolatu zuten, gaztelaniatik euskarara joan ahal izateko, hitzen bilaketan. Biontzat aringarri eta lagungarri gertatu zen epe laburrean euskaltzain oso izango zena eta orduko gazte jakintsu zenaren eupada.



Krutwig euskaltzaina

Nazario de Oleagaren urgazle izendazioa



Koldo Mitxelena eta Nazario de Oleaga, Euskaltzaindiaren bilkura batean (1957)

Federiko Krutwig izan zen, izan ere, Akademiaren lo bortxatua esnatzen saiatu zena. Haren adorea, Azkue eta Oleagaren egunerokotasunarekin batera, erabakigarri suertatu zen berriro ere Euskararen Akademia zutik jartzeko.

Gerra ondoko Euskaltzaindian den-dena egitekoa zen. Euskaltzain oso batzuk hilak ziren. Beste batzuk, aldiz, erbesteratuak. Etxe barruko gorabeherak konpontzen hasteko, Azkuek lehen izendapenak egin zituen 1941. urtean. Ordutik zen Nazario de Oleaga euskaltzain oso, eta, aldi berean, erakundearen idazkari

edo zadorlaria. Ordutik ere, hil arte, ardura berean jardun zuen Oleagak, urte anitzetan.

Egoera lazgarri eta ahulean aurkitu zuen Krutwigek Euskaltzaindia 1941. urtean. Krutwigek berak aitortua, gauza jakina da Azkuek Oleagaren bidez ezagutu zuela Krutwig, legegariari zuzendu baitzitzaion lehenengoz etorri berria. Haren bitartez erakutsi zizkion Azkueri aurretiaz euskararen inguruan eginak zituen ikerketak. Berehala egin zuten euskaltzain oso, 1942. urtean, eta, orobat, berebiziko mandatua eman, Euskaltzaindia arnasa berrietan jartzeko.



Azkue Hiztegia berrikusteko fitxak
(Azkuek eta Oleagak eginak)



Azkueren aldeko omena (1957)



Azkue Hiztegia berrikusteko ordainagiriak

Eginkizun horretan Krutwigek beti izan zuen Oleaga aholkulari lehen eta ziurra, zuzenbidearen munduko gorabeheretan trebatua, eta, gobernuaren aurrean, bipil eta aurpegi-emailea. Beharrezkoa zen Euskaltzaindia berrantolatzea, eta horretara jarri zen, buru-belarri, Krutwig bera. Haren egitasmoa aurrera zihoan neurrian, Azkue eta Oleagak pozarren ikusten zuten ekina. Lagundu ere bai, gorputz eta arima:

Plan hunen egiteko bethi eduki ukhan nuen Azkueren sostengua, bai eta Oleaga jaunarena ere, bainan bethi bezala bazegoen euskaldunetan pusillanimakoak, edo euskara garbiagoz: bildurtiak.

Urteak joan, urteak etorri, egitasmo horretan aparteko eragina izan zuten bi gertaera tamalgarrik: bateko, Azkueren heriotzak, Bilboko ibaira jausi eta handik egun batzuetara (1951); besteko, Aita Villasantek Euskaltzaindian egin zuen sarrera-hitzaldi sonatuaren ingurukoak (1952). Aspalditik zuen moldatua Krutwigek halako talde bat, *Julio de Urkijo Kultur ikhertzapenen Institutua*, Bilboko *Atheu Berrian*. Hara biltzen ziren aurreko belaunaldiko euskaltzaleak, hala nola, Garro eta Arruza, eta berriagoak ere, esaterako, aita Lino Akesolo, aita Villasante eta aita Berriatua. Gogoetagai zuten euskararen zabalkun-



Mikel Arruza euskaltzalea eta Nazario de Oleaga

dea, eta oztopo garrantzitsuak, erregimenaren debekua eta giro politiko hertsia.

Gauzak horrela, Aita Villasantek bere sarre-hitzaldia irakurri zuen 1952. urteko maiatzaren 23an, Bilboko Foru Aldundiaren Jaurerrian. Erantzule, Krutwig bera. Gogor egin zuen honek Elizaren aurka, euskararentzat zituen ardurak zokondoratzearen. Ondorioak ere, gozoak ez, Krutwigek Bilbotik alde egin behar izan zuelako eta erbesteratu. Ekintzaren mahaikide, beste batzuen artean, Nazario de Oleaga. Hurrengo egunetan ere, bera ararteko, Euskaltzaindiaren gainean gertatutakoaren zigorra jausi ez zedin.

Oleagak euskararen sustapen-lana zuen gogokoen. Euskaltzaindiaren idazkari zela, bera ere mahaikide eta sari-emailea, hirurogeigarrenekoetan Bilboko Areatzan egin ziren bertsolari norgehiagoketetan. Sasoi berean, Akademiaren eleberri eta abarreko sarietan mahaiburu, eta Jagon Sailaren sorosle.

Horrenbestez, Oleaga, bizitzaren azken urteetan, *Euskararen Laguntzaileak* (1959-1963) izeneko taldean ere aritu zen, euskara aurreratzeko pentsamenduak bultzatua. Historia hark, alabaina, okerretara jo, eta konponbide gaiztora eraman zituen geroenean hainbaten



Balendin Enbeita eta Nazario de Oleaga, bertsolari-sariak ematean (1958). Atzeko aldean, Alfonsito Irigoien, Jose Etxeandia, Eusebio Erkiaga eta Martxel Andrinua epai-mahaikideak



Eusebio Erkiaga eta Nazario de Oleaga, Txomin Agirre Saria ematean (1960)



Nazario de Oleagaren hilberri-txostena

kontuak. Ordurako, nabaria denez, zendua zen Nazario de Oleaga.

Luze ezagutu zuen Piarres Lafitte kalonje eta euskaltzain osoak Nazario de Oleaga. Euskaltzaindian hark egin zituen lanen berri ere bazuen. Hamaikatxo bilera, batzorde, ekitaldi eta abar eginak zituzten bitzuok, Euskaltzaindiaren babespean, garai mingots eta arrisku-tsuetan. Ohartu zitzaion apez euskaltzale lapurtarra zadorlari bizkaitarraren heriotzari, eta euskaltzainkide izan zuenari goresmen hitzak eskaini zizkion, bere zuzendaritzapeko *Herria* aldizkarian:

Nahiz abokat gisa bazukeen mintzatzeko errechtsun eta kalipu, behar dugu aitortu, gizon ichila zela, eta ez zuela bere burua hanbat erakusten...Ichila zen, baina bere idaietan frango thematua; ez zuen laket izkatzea, eta iduri balinbazitzaion, galde bati bere aburua emanez, kasaila emateko irris-ku zerbait bazela, nahiago zuen ez adituarena egin, eta ihardetsi gabe egon...Bertzalde, gizon gochoa, zerbitzu egilea, fededun zinezkoa, aita-familiako zintzoa, denek estimu handitan zaukatena eta maitagarri hutsa.



Nazario de Oleagaren heriotza, *Herria* astekarian jasoa (1961)

Zurtasun gogoa (1922-1923)

orixe da Nazario de Oleagak gerra aurrean atera zuen euskarazko liburu bakarraren titulua. Egia esan, idatzi baino, euskaratu egin zuen berak aurretiaz Gregorio Mujika euskaltzale gipuzkoarrak eginiko testua, haur-txoen artean aurrezkirako joera area-gotzeko.

Gregorio Mujika euskaltzale ezaguna zen Gipuzkoan. Anitz testu, artikulua eta abar argitaratu zituen gerra aurreko euskal giroan. Idazletzaz kanpo ere, haren suspertze- eta sustatze-lanak nabariak izan ziren euskalgintzaren alorrean. Horregatik etorri zen, beharbada, Oleagaren ahalegina. Hasie-



Nazario de Oleagaren
Zurtasun Gogoa (1923)

ran behinik behin, betozko jarri zitzaion lanari, berak halaxe aitorturik:

Bilbo'ko Aurrezkitegi ta Baitetxe Udaldarra-ren izenean, Mujika yaunaren lan eder saritua euskeratu nengiala eskatu eustenean, beingoan erantzun neban: ¿Mujika'k euskeratzailerik bar ete-dau, bada? ¿nor ber-bera bano ohea? ¿nok berea baño euskera sakon, errez, txukunagorik? ¿zelan ni, neure euskera urri, latz, gazbako onekin, aren lan bat euskeratzen atomau?

Hizkuntza bera, garai hartan, hautukizun zuen, hainbat hizperri, idazmolde eta adierazpide dantzan zebiltzala. Bizkaian idatzi eta bizkaieraz moldatu zuen bere egitekoa, osterantzeko formak ere aintzat hartu zituela lainoki aitortu arren:

Bizkaieraz egiteko agindu eusten eta bizkaieraz doa, noizik-bein eta euskeraren batasuna lagundu nairik, Bizkaian ezagun diran eta zabal dabiltzan itz, esakera ta, batez bere, aditz-laguntzailearen irabiaketa batzuk Gipuzkoa 'ko izkelgitik artu ditudan arren.

Errazean egiteko esan omen zioten:

Euskera errezean egiteko bere esan eusten. Askok uste izaten dau euskera erreza aitatu ezker, itz barri bakoa baña erdera-

kadaz yosia izan bear daula. Ez dot nik ori uste, itz barri barik bere, baserritarrak ezautu eta euren autuetan erabilten dituen euskera utsezko itzak, erderatiko gairik geionok, gure gai ono lenego atalena langoak izan arren bere, azaldu leiz-ta.

Begien bistakoa da, nolanahi ere, Euskaltzaindiaren arauak betetzeko ardura, euskaltzainurgazle zen aldetik:

Idazkerea, Euskaltzaindiak onetsia darabilt. Izpiakerea, Euskaltzaindiak beronetzez oraindino ezer ez dau erabagi-ta, ulerko-rrentzat daukadana erabili dot.

Larri-larri ez bada ere, zalantzadun dator euskarak behar dituen berba berrien auzira. Aukera zehatza egiten du berak:



Zurtasun gogoaren irudia, Jose Arruek egina

Orregaitik, neure arlo onetan, itz barriak, banakan bat izan ezik, alde batera iztera alegindu nazan bestean, alik erderakada gixien sartzera bere saiatsu naz, baserritarrak ezautzen dituen itzak al'izan dodan gaña erabilirik.

Badira liburu horretan bi xehetasun aipagarri. Lehena liburuan zehar dauden marrazkien egilearena da. Sinatu ere, Jose Arrue Valle (1885-1977), Arrue anaietarik gazteenak, sinatzen ditu hango irudiak. Bigarrenak, aldiz, Nazario de Oleagaren familiarengana garamatza. Izatez, emaztea eta seme-alabak dira esatari eta protagonista, liburuaren azken ipuinean. Euren artean, nabarmen, Yesustxo, Oleagatarren leinuko seme nagusia eta geroa ere luze jokatu zuena, Bizkaiko eta Bilbo-ko euskalgintzan:

Maitasunez erein... Ipuin au, baratzean, eguzki erroak estaltzen dituan zugatz zarbatsu baten gerizpean, yazoten da...Aurora, zerutik yatsiriko aingerutxo txukuna, dauko amak altzoan. Fidel'ek, orpoetan yezarrita, bere begirada garbia amaren ezpanetatik dongilizka daukala dirudi. Yesustxo'k, landan etzanda, autuaren surmurrean nasai-nasai lo dagoan txakurra, bere lagun andia, besarkatuta dauko...Zortzi urte ditu Yesustxo'k; Fidel'ek sei; lau Aurora'k...Alagalako irakaslea da bere seme-alabaentzat ama on eta gaztea. Maitasunez dirakaskie onek; areek yolastuten bezela ikasten dabe...

Eusko Ikaskuntzako kidea

Eusko Ikaskuntzaren sorrerak egundoko iraultza ekarri zuen euskal kulturaren mundura. Foruak galdurik, ekonomia-ituna indarrean, herritar askok ardura sakona zuten, XX. mendean hasia zela, Euskal Herriaren




Nazario de Oleaga, Eusko Ikaskuntzen lehen biltzarraren partaide (1918)

etorkizunaz. Antolakuntza premia ere ageri-
koa zen. Hartara, Eusko Ikaskuntzaren era-
kundera eratu eta lehen bilkura egin zen
Oñatin, 1918. urteko irailaren 1etik 8ra.
Kongresu hark iraun bitartean, Nazario de
Oleaga, oraindik Zeanurin zela, partaide izan

zen, bertaratu zirenen zerrendak argi era-
kusten duenez: «Oleaga y Muguruza, Naza-
rio-Ceánuri».

Haziak, alabaina, hasi besterik ez zuen egin,
eta Eusko Ikaskuntzaren bilkurak bata beste-
aren atzetik etorri ziren jarraiko urteetan,



Nazario de Oleaga, Eusko Ikaskuntzen hirugarren biltzarren partaide (1922)

herriaren kezka biziaren erakusle. Lehen bilkura hartan egon izanak ez zuen agortu Nazario de Oleagaren zeregina elkartearen barruan. Hainbestez, 1922. urteko irailean, 10etik 17ra, Gernikan egin zen Eusko Ikaskuntzaren hirugarren bilkura. Gaia, ezbairik gabe, pisu handikoa zen, hizkuntza eta irakas-kuntza hartzen baitzituen bere barruan bilkura hark. Oleaga, ohar eta iradokizun-egile, Amantzio Urriolabeitiak aurkeztu zuen txostenari buruz. Txostena bera ere, goiburur zehatzekoa: *Euskara eta Estatu*.



Nazario de Oleaga, Lizarrako Estatutuaren egile (1931)

Euskararen aldeko elkartea sortzeko agindua eta horretarako batzordea eratu zen bilera hartan. Batzordekideen artean, Bizkaiari zegokionez, Nazario de Oleaga. Ostera ere, Oleaga euskararen sustatzaile eta bultzatzailea.

Bada, haatik, Nazario de Oleagaren bestelako ekarria Eusko Ikaskuntzaren baitan. 1931. ur-

tean autonomiarako haize berriak etorri ziren Euskal Herrira. Eusko Ikaskuntzak denbora galdu gabe ekin zion lanari, autonomia horrek izan behar zuena egoki eta artez zertzeko. Hasi-eran, lurraldeka jokatu zen, eta, Bizkaian, Nazario de Oleagak hartu zuen agindua auzitegien nondik norakoak aztertzeko.

Haren lerrakerarik irtenenak agerian jarri ziren Bizkaiko Autonomiarako Aurreproiektuan: lurralde-entzutegia Bilbon kokatzea, foru-zuzenbidearen gaitan Auzitegi Gorena Euskal Herrian izatea, eta auzitegi-tako epaile, fiskal, idazkari eta langile, notario eta antzeko funtzionarioek euskara jakin beharra. Horiek ere, gerogarrenean, habarik sendoenak izan ziren Eusko Ikaskuntzak proposaturiko Autonomia Estatutuan.

Lizarran berretsi ziren oinarriok 1931. urteko ekainaren 14an, Euskal Herriko udalen bilkuran. Han bertan ere, Nazario de Oleaga, Mallabiako udalaren ordezkari eta eragile; biltzarrari luzatu zizkion hark aho batez onetsi ziren proposamenak, adibidez, Madril-eko gobernuburuari mezua helarazteko. Edukiak, jakina, euskara irakaskuntzaren lanabesa izan zedin eskabidea zeraman.

Historiaren harat-honatek bestera eraman bazuten ere estatutuaren haria, Nazario de Oleagarena izan zen ekimena, beste askotan bezalaxe, zuzenbidea eta euskara uztartzeko, bizimodu ofiziala eta euskara lepoz lepo bizi ez zitezen eragina eta kementa.

Bizkaiko Abokatuen Bazkunean

bokatutza eta eskribautza maiz agertu dira herri-literaturan, baserritarren eta abarrekoen destainak eta irriak bilduz. Hala ere, gutxitan gertatzen da eguneroko ogibideetan, herriaren maila desberdinekin harremanetan ibili eta haren ezaugarriak ondo bereganatzea, letradu eta eskribauen munduan baino. Egin-eginean ere, Nazario de Oleagaren biografiak Bizkaiko abokatutzak iragan mendean izan dituen abiaburu esanguratsuenak biltzen ditu bere ibilbidean.

Arestian azaldu legez, luzaroan izan zen Nazario de Oleaga Esteban Bilbao



Nazario de Oleagaren bulegoa, Bilboko Jardines kalean

ospetsuaren bulegokide, Bilboko Correo kaleko 25ean, Gran Via kaleko 2an edota Jardines kaleko 1. zenbakian. Artean ere, makina bat abokatu gazte igaro ziren bulego hartatik, besteak beste, Jose Antonio Agirre lehen-dakaria, ofizioaren lehen kontuak ikasteko asmoz (1925-1927).

XX. mende hasiera-hasieratik dugu abokatu Nazario de Oleaga, hain zuzen, ikasketak amaitu berri zelarik. Abokatuen Bazkuneko karguduna ere, 1935. urtean dator lehenengo aldiz, Bigarren Errepublikaren giro oldartatuan. Errepublika-garaia ez ezik, gerra-denborak ere bizi zituen hark kargu horretan. Areago, Bilbo Francoren eskuetan jausi bi-



Abokatu-txartela



Nazario de Oleaga, Abokatuen Bazkuneko arduradun

tartean, bera izan zen Bazkuneko arduradun nagusia, burua, Jose Iturmendi Lopez jauna, Francozaleen lurraldean zegoela.

Gerra ostean ere, sarri-sarri Nazario de Oleaga kargudun Bizkaiko Abokatuen Bazkunean, 1956. urtea arte. Etena baino, segidakoa izan zen 1962. urtean haren seme Jesus de Oleagak halako ardurak hartzea.

Zer-nolako legelaria Nazario de Oleaga? Ezagutu zutenen iritzian, zin-zinezko zalduna, bakerako eta konponbiderako aproposa, inolako txutxu-mutxu eta esamesetan ibiltzearen kontrakoa.

Esanaren froga ukaezina, bera hil eta gero, Euskaltzaindiak eskaini zion omenaldia arretatsua (1984). Bi hizlari izan ziren orduko hartan esatari lehena, Juan Gorostiaga apaiza; eta, bigarrena, Jesus de Oleaga semea. Honek, aitaren ondokoa izan eta hitz laburretan azaldu zituen haren aiurri eta tankera:

Beste alde batetik be, gogoan dabe Don Nazario, Abogadu lez, beronegaz, artu-emonak izan ebezan pertsonak (emen ikusten dodaz adiskide batzuk) aren jokabide zuzena, aren adorea ta kemena —Batzuetan estu-samarra izanarren be—; ezaguna zan aren egikerra berak erabilten ebazan auzi-arazo guztietan, Bizkaian eta Bizkaitik kanpo.

Hutsik egin gabe, ideologia guztien gizabana-koak defendatzeko eta babesteko prest, auzitegietan euskaltzale nabaria... eta ararteko preziatua. Egikera eta arartekotasun horren

erakusle ederra da, hain justu ere, Espainiako gerra zibila pil-pilean zegoela, berak gauzatu zuen bitartekari-lana. Baziren alderdi bateko eta besteko bilbotar atxilotuak gerraren lehen aldietan. Hortaz, 1936. urteko abuztuan Nazario de Oleagak egin zuen Bilbotik Burgo-serako bidaia, bi agintariren trukaketa errazteko. Errepublikazaleek Esteban Bilbao jauna askatu behar zuten, Francozaleek gauza bera egin behar zutela Ernesto Erkoreka jaunarekin, alegia, Bilboko alkatearekin. Azken horrek erdietsi zuen presondegitik irteeta. Ahaleginok, hala ere, argi erakusten dituzte Nazario de Oleagaren edu eta izatea.



Euskaltzaindia, Nazario de Oleagaren omenez (1984)


Foru-zuzenbidearen defendatzailea

Oleagaren biografia, bestalde, baliagarri oso Bizkaiko foru-zuzenbidearen norabideak ikertzeko, 1876. urteaz geroztik. Urte horretan azken foru-aztarnak desagertu arren, bizi-bizirik geratu ziren foru-legeak: baserriaren *tronkalekoa*, andra-gizonen arteko ondasunen *komunikazioa*, jarauntsien *maiorazgoa* eta testamentu mota bereziak (*alkar poderosoa*, *hil burukoa* eta *ermandadekoa*).

Indarrean egon arren, zaharkitzeko arriskuan ziren horiek, gain-gainean baitzuten Espainiako Kode Zibilaren eragina, 1889. urtean argitaratu zena. Horren agindura ere, herrialde forudunetan txostenak eta proiektuak egin

behar, foru-zuzenbide pribatutik zer hartu behar zen zehazteko. Bizkaiak 1900. urtean gauzatu zuen berea, inolako jarraitutasunik izan ez zuena. Harrezkero ere, 1928. urtean, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak berriro aztertu eta aldakuntzak egin zituen testuan. Alfer-alferrik, ordea, ordukoan ere indarreko lege-mailarik ez baitzuen iritsi. Gerra ostean, berriz, Madrileko Gobernuak erabaki zuen Espainiako Kode Zibilaren errekarroan jartzea foru-zuzenbideak, eta horretarako batzordeak izendatu zituen. Bizkaikoan, igarri-igarrian, Nazario de Oleaga zen ordezkarietako bat, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren izenean.

Aldi berean, 1946. urtean Zaragozako Biltzarrera joan zen Oleaga, Bizkaiko ordezkari



Gerra zibilaren garaiko ahaleginak

kari. Han erabaki zen foru-bildumak egitea, eta bide horretatik etorri zen 1959. urtean, Nazario de Oleaga batzordekide zela, Bizkaiko Foru Zuzenbidearen Bilduma, oraintsu arte indarrean iraun duena, Eusko Legebiltzarrak 1992. urtean foru-lege berria onetsi arte.

Legegile ez ezik, jarduneko abokatu ere izan zen Nazario de Oleaga, eta jardun horretan sutsu babestu zuen Bizkaiko foru-zuzenbidearen aplikazioa. Horrek ekarri zuen, gerokoa ere, Jesus de Oleaga eta Jabier de Oleaga haren semeak ildo beretik joatea, foru-zuzenbidearen mundua jasotzeko eta eguneratzeko.

Oleagatarrak

Nazario de Oleagaren seme-alabek esparru zabaleko familia osatu dute Bilboko abokatzan. Jesus, Fidel, Leonor, Agustin eta Jabier de Oleaga, bai eta horien ondorengoek ere, trebe agertu dute aita eta aitona zenaren eite bera, legelari euskaldunaren eta herriaren ardurak noranahi eta zernahitarako eraman dituztela.

Euron artean, batez ere, Jesus de Oleaga Etxeberria (1914-1998) nabarmendu behar; sutsu jarraitu baitzion seme nagusiak aitaren ereduari, Euskal Herriaren eta euskararen aldeko ekintzetan. Gazte zela, aitari lagundu zion Ger-



Oleaga aita eta hiru seme-alaba legelari: Leonor, Jabier eta Jesús Oleaga

nikara, Eusko Ikaskuntzaren hirugarren biltzarrerera (1922). Han bertan ere, Leizaola eta Ramirez Olano euskaltzaleak Guardia Zibilak atxilotzen ikusi, Euskal Unibertsitatea eskatzearen. Zeanurin jaio eta bizi zen familia osoa, lehen esan legez, 1925. urtean Bilbora etorri arte. Ez zituen horrek moztu, horratio, Jesus de Oleagak zeanuritarrekin beti-beti izan zituen zuzeneko harremanak.

Deustuko Unibertsitatean 1931. urtean hasi eta 1936. urtean amaitu zituen lege-ikasketak. Ikasle izan eta Eusko Ikasle Batzaren partaide jardun zuen, Estatutuaren aldeko hizlari eta mitin-emaile, Errepublikako urteetan. Gerra zibila bukatu zenean, abokatu ibili zen, hasieran aitarekin, eta gero bere aldetik. Bizkaiko Abokatu Bazkunean kargudun (1962-1982), eta Euskalerriko Adiskideen Elkartearen ere urte luzetan idazkari, Adrian Zeilaia epaile eta adiskidea buru zelarik.

Euskararen defendatzaile asperrezina, euskaltzain urgazlea (1963) eta *Euskerazaleak* elkarte euskaldunaren sortzaile eta lehen zuzendaria (1967), Jesus de Oleagak beti eutsi zion euskarari, neke eta aitzakiarik gabe. Gazte zeino ere, euskarazko eskolak eman zituen Eusko Ikasle Batzan, eta idazle aritu zen, *Euzkadi* egunerokora Zeanuriko berriak bidaltzen zituela.

Aitaren ezpaleko, foru-zuzenbidezale ere bazen Jesus de Oleaga. Hori dela bide, uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa, atondu zuen Batzordearen kide. Eusko Legebiltzarraren lege horrek itxuraldatu zuen hogeita hamahiru urte lehenago Francoren erregimenpean Foru Bildumak ezarritakoa. Aspaldiko hartan, Nazario de Oleaga aita izan zen egileetako bat. Oraingo honetan, era berean, Jesus de Oleaga semea batzordekide eta eragile.



Jesús Oleaga, euskararen bultzatzaile



Jesús Oleaga, *Euskerazaleak* elkartearen sortzaile

Jesus de Oleagaren izaera hitz laburretan adieraztea ezin bazterrean utz. Gertu-gertukoa izan genuenontzat, pertsona maitagarria eta adiskide paregabea, gizon zehatza eta leberra. Abel Muniategi legelari euskalduna ere bide beretik etorri zen, Jesus de Oleagaren heriotza ondoan, aipuan jartzen zuela *Eusker*a aldizkarian (1998):

Haren aita, Nazario Oleaga Muguruza, Zeanuriko Udalaren idazkari zen eta abokatu bulegoa zuen Bilboko Jardines kalean. Euskaltzaindiaren idazkari ospetsu urte luzee-tan izango zenak euskaltzaletasuna eta abokatutza itsatsiko zizkion, betiko, jaio berriari. Bi ardatz hauen gainean eramango zuen aurrera Jesus Oleagak bere bizitzaren gurdia bide zabal eta estu, lautada, trango eta basatzan zehar.

Aita eta seme-alabek, hortaz, euskara eta zuzenbidearen haria ehotu zuten garai latz eta zailetan. Egun ere, euskal jurista frankok ekimen berberean dihardugula, ezagutu eta zabaldu beharreko jokabidea, Nazario de Oleaga Muguruzak hasi, eta beraren seme-alabek jarraitu eta ondu dutena.



Jesus Oleagaren hilberri-txostena, Abel Muniategik egina (1998)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaratik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari*
- *Francisco Jabier Oleaga Echeverriari*
- *Jesus Oleaga Echeverriari (g. b.)*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g. b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2176-3 (Lan osoarena) 84-457-2177-1
L.G.:	BI - 2.958-04